

“Ipuin bat irakurri lotara joan haurretik”

GURASOEK KASU EGITEKO ESKATZEN DIGUTE, ZERBAITENGATIK IZANEN DA...

Goiz hartan, eskolara zihoazela, erraldoiek tximeleta polit bat ikusi zuten, han zeuden Xabi eta Xubane (erraldoiak biziki maite dituzten bi txikiak), haren atzetik korrika.

- *Egunon* -esan zuten erraldoiek-, ez *duzue harrapatuko, lasterka irabazten dizue.*
- Korrika asko egiten dugu eta hartu egingo dut, nire arreba Iraiari oparitu nahi diot! -esan zuen Xabik-.
- *Baina tximeletak ez dira oparitzeko, hegan egiten utzi behar dira* -esan zuen erraldoi batek-.

Baina Xabi eta Xubane zoriontsu zeuden, oso dibertigarria zen korrika egitea, ia harrapatu dute!

- *Goazen azkar, edo berandu iritsiko gara* -esan zien Iraiak, jarraitzeko presa zuen eta-.
- *Segi zu aurrera, berehala goaz.*
- Amek esan dute ez bereizteko nigandik eta kasu egiteko -Iraia haserretzen hasia zen-.
- *Kasu egin* -esan zieten erraldoiek-.
- *Atzetik joanen gara, segi, segi lasai.*

Eskolara abiatu ziren. Iraia lasaiago zihoan, bazirudien biek jada kasu egiten ziotela. Bidean, biek esan zuten ondo legokela mendira joatea tximeletak hartzera, inork ez zela konturatuko eta beranduago itzuliko zirela. Erraldoi batek entzun zuen esaten zutena:

- *Ezin duzue hori egin* -esan zien-.

Umeak korrika abiatu ziren mendira, esanez:

- *Ez esan ezer, bazkaltzeko itzuliko gara eta ez da inor enteratuko.*

Eskolako sarreran jende asko zegoen. Iraia bi haurren bila hasi zen, baina ez zituen ikusten.

- *Ez zaitetz kezkatu* -esan zion erraldoiak-, uste dut sartu direla.

Erraldoiak bazekien ez zegoela ongi gezurra esatea, baina sinetsita zegoen Xabi eta Xubane bazkalordurako itzuliko zirela, eta ez zuen txibatoa izan nahi. Lasai-lasai sartu ziren, denok zeudela pentsatuz.

Bazkaltzeko ordua iritsi zen, eta haurrak ez ziren itzuli, baina zalaparta handia zegoenez inork ez zion erreparatu. Irteeran, elkartu behar zutenean, orduan konturatu ziren biak falta zirela. Iraiak ezin zuen sinetsi, erraldoiak esan bazion bazeudela. Denok erraldoiarengana hurbildu ziren, berak ezin zuen gehiago aguantatu, eta egia esan zuen:

- *Nik, bazkaltzeko orduan etorriko zirela pentsatzen nuen. Baina, ez zuten ezer txarrik egiten eta primeran pasatzen ari ziren!*
- Hauxe da gezurrak esatearen ondorioa -esan zuen ama haserre batek-. Uste duzue horrela lagun hobeagoak zaretela, baina ez, egia esan behar da. Baina orain garrantzitsuena nora zihoazen esatea da, eta haiek bilatzea; geroago hitz egingo dugu. Goazen!

Bitartean Xabi eta Xubane mendian zoriontsu jarraitzen zuten, egun osoa zeramaten korrika, jolasean eta ez ziren konturatzen zein ordu zen, baina berehala gose pixka bat izaten hasi ziren.

- *Xubane, gose naiz* -esan zuen Xabi-.

- *Baita ni ere, agian hobe dugu etxerantz joatea.*
- *Ados. Esan zuk nondik jaisten den.*
- *Ez naiz gogoratzen -esan zuen Xubanek-.*
- *Ezta ni ere.*

Haurrak oinez hasi ziren, ez zeuden kezkatuta, bidea aurkituko zuten. Denboratxo bat oinez zeramatenean, zarata entzun zuten zuhaitzen artean.

- *Agian orein bat da -esan zuen Xabik-.*
- *Goazen begiratzera -erantzun zion Xubanek, animaliak ikaragarri gustukoak baitzituen-.*

Zuhaitzetara hurbildu ziren begiratzera, egia esan bi haur hauek ez ziren ezeren beldur, begiratzea eta dena ezagutzea gustatzen zitzairen. Sorpresa handia eraman zuten: zuhaitz baten ondoan, zutik eta oso nekatu aurpegia zuela, erraldoi bat zegoen. Erraldoi arraro bat zen, ez zuten inoiz ikusi, eta, beraz, berarekin hitz egitea erabaki zuten:

- *Kaixo, zer moduz? -esan zioten-.*
- *Kaixo neska-mutil -erantzun zien erraldoi andreak-.*
- *Erraldoi guztiak ezagutzen ditugu eta zu ez zintugun inoiz ikusi -esan zioten Xabik y Xubanek-.*
- *Ene bada, denak ezagutzen dituzue eta ni ez? Ezinezkoa, ni bainaiz erraldoi guztien artean dantzaririk onena, eta ederrena, eta altuena, eta...*
- *Aski, aski. Ez jarraitu, ikusten dugu erraldoi harroputz xamarra zarela, ez da?*

Umeei barregura handia eman zien, ez baitzitzairen ederrena eta altuena iruditzen, baina...

- *Malene dut izena -esan zuen erraldoiak-.*

Orduan Xabik barre egiteari utzi zion. Inoiz ez nuen erraldoi hori ikusi, baina haren izena bai ezagutzen zuela. Munduko erraldoirik inbidiosoena zen, eta bere inbidiak bultzatuta erraldoi guztiak zurezkoak eta kartoizkoak bihurtu zituen.

- *Badakit nor zaren -esan zuen Xabik-.*
- *Baita ni ere, erraldoirik ederrena zara, bai, eta altuena, baina baita inbidiosoena eta hori ez dago batere ongi -esan zuen Xubanek-.*
- *Badakit, bai, badakit eta horrexegatik ni ere zurezkoa eta kartoizkoa bihurtu naiz, eta orain mendian ezin ibiliz nago. Nire etxeraino laguntzen badidazue jatera emanen dizuet, gose zaudete eta.*
- *Ba ezin dugu, Malene anderea, jaitsi behar dugu oso berandu delako. Baina ez dakigu bidea, eta gure familiek jakingo dute ihes egin dugula, eta ikusiko duzu.*

Malene erraldoia harroputz samarra zen, eta gainera oso inbidiosoena zen, baina ez zen gaiztoa, eta konturatu zen hurrei lagundu ahal ziela; beraz, eskua emateko eskatu zion, berak erakutsiko zion itzultzeko bidea.

Hirurak mendia jaisten hasi ziren, Xabi eta Xubane jada lasaiago zeuden, bidea ezagutzen hasi ziren eta bazekiten Malene laguntzen ari zitzaiela. Eskerrak! Ihes egin dutela jakiten badute ... Hurrek ez zekitena da herrian bazutela beren bihurrikariaren berri, eta haien bila hasi zirela, batzuk ibaian, besteak parkeetan eta haien familiak, erraldoiekin batera, mendira bidean.

Bide erdian erraldoiekin topo egin zutenean, aurpegia aldatu zitzairen Malene bi haurrak eskutik helduta ikustean.

- *Zertan ari zara hemen berriro? -galdetu zioten-. Ez dizu nahiko gaiztakeriarik egin? Utzi umeak, erraldoi txarra.*

Malenek begirada jaitzi zuen, lotsatuta zegoen, haurrak askatu zituen eta gurasoekin besarkatzera korrika joan ziren; pozik zeuden orain denak.

Xabiren amak esan zuen:

- *Pozik gaude zuek ondo zaudetelako, baina egin duzuen gaizki dago, susto handia eman diguzue eta oso kezkatuta geunden.*
- *Sentitzen dugu -esan zuten biok batera- baina ...*
- *Ez dago bainarik -esan zuen bere bihurrikeria ezkutatu zuen erraldoiak-, gezurrak esan ditut zuengatik eta hori ez dago ondo eta gero erraldoi honekin agertzen zarete?*
- *Bai, baina lagundu egin digu, ez genekien itzultzen eta berak erakutsi digu bidea -esan zuen Xabik-.*
- *Ezin dut sinetsi! -esan zuen beste erraldoi batek- orain erraldoi ona zara?*

Xubanek esan zien harroputz samarra eta oso inbidiosoa zela, baina oso ona izan zela haiekin, pena pixka bat ematen ziola.

Malenek, artean ezer esan gabe, begirada jaso eta esan zien:

- *Bai, harroputza ematen dut eta oso inbidiosoa izan naiz, baina nik ez neukan lagunik eta ez nekien zer egin, beraz konjuru bat bota nizuen eta begira: ni ere zur eta karto bihurtu naiz!, konjuru alderantziz atera zitzaidan eta orain erraldoi guztiak zurezkoak eta kartoizkoak gara, horregatik daude hainbeste. Barkatuko didazu egunen batean? Hain bakarrik nengoan, ez nuen zertan ari nintzen pentsatu.*

Han zeuden guztiak pena sentitu zuten Malenerengatik, ez zen gaiztoa, bakarrik zegoen eta horrek zen bezalako izatea eragin zion. Egia zen, baita ere, bakarrik zegoela, bera beti hoberena zela uste zuelako, baina damututa zegoen, eta, beraz, erabaki zuten onena zela haiekin jaitea eta mendian bakarrik ez bizitzea.

- *Mila, mila esker -pozez negar egiten zuen Malenek.*

Herrira jaitzi ziren eta denak oso zoriontsu zeuden, Xabi eta Xubane itzuliak ziren. Hori bai, astebete egon ziren litxarreriarik gabe zigortuta, susto ederra eman zuten eta. Haiengatik gezurra esan zuen erraldoia oso damututa zegoen, eta litxarreriarik gabe ere geratu zen egun batzuetan.

Eta gauza txar guztietatik zerbait ona ateratzen denez, badugu sorgin bat, inbidiaz sorginkeria bat gaizki egin zuena eta bera ere zur bihurtu zena.

Ikusten duzue, inbidia gaiztoa da, Malene bakarrik eta lagunik gabe baitzegoen. Orain, hain xaloa eta bekaiztia izateari utzi zionean, maite zuen jende asko izaten hasi zen. Orain hain harroputza eta inbidiosoa izateari utzi zionez, maite zuen jende asko izaten hasia zen.

Inbidia txarra da, ez da besteek dutena nahi izan behar. Bakoitzak izaera eta izateko modu ezberdinak ditu eta horrek asko balio du.

Ez dago gezurrik esan beharrik erraldoiak lagunei laguntzen ziela pentsatuz egin zuen bezala, gezurrek ez dute inoiz laguntzen.

Eta ikusten duzue ez dela nahi duzuen egin behar, eta gurasoek esandakoari jaramonik ez egin, zeren, oso kezkatuta baitzeuden bila zebiltzan bitartean, eta oso triste. Zerbait egiteko agintzen digutenean, ondo egoteaz arduratzen direlako da, eta haiek dira gehien maite gaituztenak.

Amets erraldoiak izan ditzazuela!